# Xedapen Orokorrak

## INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### Zk-5410

227/1997 DEKRETUA, urriaren 14koa, Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta egitekoena ezartzen duen Dekretua hirugarrengoz aldatzeari buruzkoa.

1995-1998 legegintzaldirako Jaurlaritza osatzeko egin zen koalizio-akordioan programari buruzko hainbat erronka, helburu eta konpromezu ezartzen dira. Administrazio publikoa berregituratzea eta arrazionalizatzea da, besteak beste, helbururik behinetarikoa. Arrazionalizazio horrek egiturak egokitzea ekarriko lioke sail honi, honako onarrizko helburu hau betetzeko:

– Herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak hobetzea. Beharrezkoak diren mekanismoak ezarriko dira Administrazioak izan dezan jardueraren hurbiltasun-, eragin-kortasun- eta ekonomia-printzipioak betetzeko.

Helburu hori betetzeko lehenengo urratsa barneko egitura administratiboak egokitzea da, izan ere, kokapen geografikoko arrazoiak direla-eta, herritarren eta administrazio industrialaren arteko hasierako elkargunea baitira egiturok.

Egon dauden giza-baliabideak eta ekonomikoak izango ditu abiapuntu lez egitura berri honek, eta bai «administrazioaren egitekoak» deritzon izaera izan beharko duten egitekoen planifikazio egokia ere. Egitekook, izan ere, eremu honen barruan, herritarrek egiten dituzten demanden araberakoak dira; kontuan izanik, halaber, «industri segurtasuna», kontzeptu lez, istripuetatik eta industriako, energiako eta meategietako jardueretan aritzeak dituen arriskuetatik babesteko izan dadila.

Helburu horiek betetzea progresiboa da. Lehenengo aldian, halabeharrez, Administrazioaren birreraketa aukeratzen da, behar–beharrezkoa dena bestalde.

Ildo horretatik, sail honek hiru lurraldeetan duen ordezkotzak Industri, Energi eta Meategien alorrak hartzen ditu unitate periferikoen bidez. Unitateok «Industri, Energi eta Meategien Lurralde Bulego» lez eratuko dira.

Ondorioz, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, Lehendakariak aldez aurretik onartu eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko urriaren 14an egindako bileran aztertu ondoren, hauxe

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

### N°-5410

DECRETO 227/1997, de 14 de octubre, de tercera modificación del Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.

El acuerdo de coalición para la formación del Gobierno en la legislatura 1995-1998 establece toda una serie de retos, objetivos y compromisos programáticos para este periodo, entre los cuales se destaca la necesidad de proceder a una reestructuración y racionalización de la Administración Pública, racionalización que en lo que afecta a este Departamento se debe materializar en una adecuación estructural que permita el cumplimiento del siguiente objetivo básico:

– Mejora del servicio prestado a los ciudadanos estableciéndose los mecanismos necesarios para el cumplimiento de los principios de cercanía, eficacia y economía de la actuación administrativa.

Un primer paso para el cumplimiento de este objetivo es la adecuación de las estructuras administrativas internas que por razones de localización geográfica suponen un primer punto de contacto entre los ciudadanos y la Administración industrial.

Esta nueva estructura debe partir del análisis de los recursos humanos y económicos existentes y de la adecuada planificación de las funciones que deben tener el carácter de «funciones administrativas», funciones que nos vienen determinadas, dentro de este ámbito, por las demandas de los ciudadanos y por la necesidad de garantizar que la «seguridad industrial», como concepto, se corresponda con una realidad de protección contra accidentes y riesgos inherentes al ejercicio, tanto de actividades industriales como energéticas y mineras.

El cumplimiento de estos objetivos se plantea de una forma progresiva seleccionando, en una primera fase, como no podía ser de otra forma, la necesaria reorganización administrativa.

En este sentido, la representación de este Departamento en los tres territorios se delimita a las áreas de Industria, Energía y Minas a través de unidades periféricas que pasan a configurarse como «Oficinas Territoriales de Industria, Energía y Minas».

En su virtud a propuesta del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca previa aprobación del Lehendakari, y deliberación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 14 de octubre de 1997,

XEDATU DUT:

*Lehenengo atala.*– Urtarrilaren 31ko 81/1995 Dekretuaren 13. atala aldatzea, aurrerantzean honela geldituko dela:

«*13. atala.*– 7. atalean orokortasunez finkatutakoez gain, honako egiteko hauek dagozkio Industri, Energi eta Meategien Administrazioko Zuzendaritzari:

a) Industriaren, energiaren eta meategien alorretan Administrazioaren baimena jaso behar duten espedienteen kudeaketa, izapidaketa eta ebazpena.

b) Lurraldekako bulegoen zuzendaritza, koordinazioa eta antolaera.

c) Lurraldekako bulegoen ekintza edo jarduerei darizkien arrenkura-, salaketa- edo erreklamazio-prozedura guztien ebazpena.

d) Hurrengo atalean ezarritakoa aplikatzearen ondorioz lurraldekako bulegoei egozten ez zaizkien egiteko guztiak».

*Bigarren atala.*– «Lurralde Ordezkaritzei» buruzko IV. atalburua aldatzea, aurrerantzean honela geldituko dela:

«IV. atalburua: Industri, Energi eta Meategien Administraziorako Zuzendaritzaren Lurralde Bulegoak».

*25. atala.* 1.– Industri, Energi eta Meategien Administraziorako Zuzendaritzaren menpe, zuzenean eta hierarkia mailan, Industri, Energi eta Meategien Administraziorako Zuzendaritzako lurralde bulego bana egongo da lurralde historikoetan. Kudeaketa ekonomikoa, Administrazioaren izapideak eta hurrengo puntuan ezartzen denari jarraiki finkatzen diren egiteko ejekutiboak burutuko dituzte.

2.– Lurralde Bulegoen egitura eta antolaera dekretu honen garapen eta exekuzio xedapenen bidez ezarriko dira».

*Hirugarren atala.*– Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saileko ihardun eremuetako zehapen prozeduren arloko eskumenak noren esku dauden finkatzeari buruzko azaroaren 7ko 471/1995 Dekretuan zehapen gaietan lurralde ordezkariei egozten zaizkien eskumenak Industri, Energi eta Meategien Administraziorako Zuzendaritzak beregana ditzake.

Lurralde Bulegoetako buruzagiek, dekretu hau garatzeko arauetan horrela agindu dadinean, legehauste arinei buruz bakarrik eskura ditzakete zehapen eskumenak.

DISPONGO:

*Artículo primero.*– Modificar el artículo 13 del Decreto 81/1995 de 31 de enero, que quedará redactado como sigue:

«*Artículo 13*: Corresponden a la Dirección de Administración de Industria, Energía y Minas, además de las que con carácter general se establecen en el artículo 7, las siguientes funciones:

a) Gestión, tramitación y resolución de todos aquellos expedientes que en materia de industria, energía y minas deban ser objeto de autorización administrativa.

b) Dirección, coordinación y organización de las Oficinas Territoriales.

c) Resolución de todos los procedimientos de queja, denuncia o reclamación derivadas de actos o actuaciones de las Oficinas Territoriales.

d) Todas aquellas funciones que por aplicación de lo establecido en el artículo siguiente no resulten atribuidas a las oficinas territoriales».

*Artículo segundo.*– Modificar el capítulo IV «De las Delegaciones Territoriales» que quedará redactado como sigue:

«Capítulo IV: «De las Oficinas Territoriales de la Dirección de Administración de Industria, Energía y Minas».

*Artículo 25.* 1.– Bajo la dependencia directa y jerárquica de la Dirección de Administración de Industria, Energía y Minas, en cada uno de los Territorios Históricos existirá una Oficina Territorial de la Dirección de Administración de Industria, Energía y Minas que ejercerán funciones de gestión técnica y tramitación administrativa, así como aquellas funciones ejecutivas que se determinen de acuerdo con lo que se establece en el punto siguiente.

2.– La estructura y organización de las Oficinas Territoriales será establecida a través de las disposiciones de desarrollo y ejecución del presente Decreto».

*Artículo tercero.*– Las competencias que en materia sancionadora se atribuyen en el Decreto 471/1995, de 7 de noviembre, por el que se atribuyen competencias en materia de procedimientos sancionadores en las áreas de actuación del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, a los Delegados Territoriales, pasarán a ser ejercidas por la Dirección de Administración de Industria, Energía y Minas.

Los Jefes de Oficina Territorial podrán ejercer competencias sancionadoras, únicamente en supuestos de infracciones leves, cuando así se determine en las correspondientes normas de desarrollo de este Decreto.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Agindu honen bidez dekretu hau garatzeko eta exekutatzeko beharrezkoak diren xedapenak onartzeko ahalmena ematen zaio Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari.

*Bigarrena.–* Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko urriaren 14an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se faculta al Consejero de Industria, Agricultura y Pesca para que mediante Orden apruebe las Disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su completa publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 14 de octubre de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

## KULTURA SAILA

### Zk-5411

235/1997 DEKRETUA, urriaren 14koa, Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen Dekretua aldatzen duena.

Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioko sailak sortu, ezabatu, aldatu eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzen dituen urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuaren bidez Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia eta berorrek zituen zuzendaritza biak Kultura Sailari atxiki zitzaizkion. Dagoeneko ezabaturik dagoen Lehendakaritzako Idazkaritzari atxikita egon zen ordura arte Idazkaritza Nagusi hori.

Maiatzaren 30eko 281/1995 Dekretuz ezarri zen Kultura Sailak gaur egun duen egitura berria. Hizkuntza Politikaren Sailordetzak, ordura arte Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiari zegozkion eskumenak eta egitekoak bereganatu zituen. Lehendik Kultura Sailaren egituran zegoen Euskara Sustatzeko Zuzendaritza ere bereganatu zuen.

Ekonomia Gaietarako Jaurlaritzaren Ordezko Batzordearen 1996ko martxoaren 14ko Akordioan aldezko irizpena eman zitzaion Kultura Saileko lurralde ordezkaritzek betetzen dituzten zerbitzuak berriro zehaztu eta eratzeari buruzko egitasmoari. Egitasmo hori Kultura Sailak bidali zuen eta ordezkaritzetako giza-baliabideen eta materialen arrazionalizazioa jasotzen zuen, aipatutako baliabide horiek hobetzeko; beti ere, herritarrei ematen zaizkien zerbitzuei kalterik ekartzen ez badie. Sail horren sail-atalak egon daitezkeen arren lurralde historikoetan, lurralde ordezkaritzen gaur egungo eraketa-modua desagertu egingo da.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

### N°-5411

DECRETO 235/1997, de 14 de octubre, de modificación del Decreto por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura.

El Decreto 1/1995, de 3 de enero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos integró en el Departamento de Cultura a la Secretaría General de Política Lingüística, con sus dos Direcciones, adscrita a la extinta Secretaría de la Presidencia.

Por Decreto 281/1995, de 30 de mayo, se estableció la nueva estructura orgánica del Departamento de Cultura, el cual como novedad más importante incorporó a través de la Viceconsejería de Política Lingüística las competencias y funciones encomendadas hasta la fecha a la Secretaría General de Política Lingüística, en la cual se incorporó así mismo la Dirección de Promoción del Euskera existente anteriormente en el Departamento de Cultura.

El Acuerdo de la Comisión Delegada del Gobierno para Asuntos Económicos de 14 de marzo de 1996, informó favorablemente el proyecto sobre redefinición de los servicios prestados por las Delegaciones Territoriales del Departamento de Cultura y su reorganización, elevado por el mismo Departamento que contenía la racionalización de los medios humanos y materiales de las mismas, en aras de lograr una optimización de tales recursos, sin que ello fuera en detrimento de los servicios que prestan al ciudadano. A tal fin se ha entendido que, sin perjuicio de que puedan existir unidades descentralizadas del propio Departamento en los diferentes Territorios Históricos, las Delegaciones Territoriales, tal y como en la actualidad están conformadas deben desaparecer.